



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritzza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OtaegiKEguren.htm>

EGUREN JAUNEN METODOA

Klaudio Otaegi

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

EGUREN JAUNEN METODON LAUGARREN PARTEA

Bijo Jainkokin. Eun on, Jaunak. Betor Jainkokin. Atsalde on diela. Bai zuri re. Eun on Jainko tiela. Gau on dezela. Adio, aiskirea. Beori serbitzeko. Zer dio? Txit ondo, ta beori? Ondo, eztao nobedade partikularrik, Jainkoi eskerrak. Alegratzen naiz. Eskerrikasko. Atera otsen doe. Nor da or? Zeñ da? Iñor ez. Zeñ etor da? Ezaune ezta jaun bat. Zer nai do? Beorrekin hitzein nai do. Nola deitzo beorri? Ez nau ezautzen? Enaiz akordatzen istante ontan. Irungo Garzia naiz. Ondo etorri dala. Zer aindu bear dit? Zer deseaten do? Eztet beori ezautzeko ondrait. Erderaz hitzein do? Bai jaune - Ez jaune. Eskeldune naiz ta eztet entenditzen erderaz. Aitzen dit? Eztakit eskueraz hitz eiten. Zer da ori? Mesede bat eingo dit? Gusto aundikin. Noiz dator korreoa? Atsalden - Gauen. Ai beza. Aitzen diot. Ezer bear do? Zertan gusto eman daikiot? Zer esan nai do orrek? Zesan nai do rrekin? Barka beza, ekibokau nitzen? Nai dit esan ze ordu dan? Amaika ta erdi tie. Biar zer eun da? Biar domeikea da. Zer ordutan baskaltzen do? Ordu bat eta erditan bazkaltzet. Beorren menden nao. Beorrek aindu beira nao. Eztet inkonbenienteik. Nekin konta beza. Aldean guztie eingo det. Ne kontura eutzi beza. Ortan gusto aundie dauket. Nekin konta daike. Beori serbitu nai noke. Egiz, bai por zierto. Oañ oañ bezela ezin liteke. Ezte (sic) nik kulpaik. Iñolare ez taiket. Erreutzen diot barka dizala. Eztaikiot gusto eman. Beste zerbaitetan serbituko det. Jainkok nai dezala. Norabuenea ematen diot. Eskerrak ematen diot. Ezta zeati. Eztitu mezi. Etzat astuko beñ e orremeste mesede. Eztakit eskerrak nola eman beorri. Ori guztiz egie da. Eztao dudaik. Dudai pae ala da. Ortaz guztiz seguru nao. Asegurau daikiot. Seguro eon daike. Progauko diot. Ekibokatzen da. Ezta egie. Ezta orla ori. Ezinisgarrie da ori. Ezta posible orlako gauzaik pentsatzea. Palsa da. Utseite bata ori. Astue da



beori. Orlako gauzaik ezta egie. Engañau doe beori. Ori ezin izan diteke. Ez, ezta ori. Izan diteke. Itxuraundikoa da. Ezta bate arritzekoik. Ezta ezer errezagoik. Ori jakine da. Beti ikusten deu ori. Eztao arritzeko motiboik. Zeñek dudatzen do? Ezta zer dudatuik. Zer eingo loke (sic) beorrek orlako kason? Ezautzen do beorrek ne itzie. Arrazoi do. Zer konseju ematen dit? Jarri bei ne lekun. Gogorazio bat, etortzen zat. Zer deitzo beorri? Zir ero zart ein bear da. Eztao beste erremedioik. Estenditue nao. Beori seguru dao? Asko dudatzet. Oso arritzen nau. Sekula enon uste orlakoik. Izutue nao. Nork pentsa zezaken. Sekula ezte ikusi orlako gauzaik. Marabilla bata. Zori onekoa naiz. Pozez zorutzen nao Nere aundi-naie betea dao. Satisfazio aundi bata. Zer lastima! Pena aundie dauket. Zorigaizto bata. Ernegatzen nao. Zer desgrazi aundie! Zer suerte txarra! Eztao orremesteañoiko eamateik. Zer infamie! Au izugarrie da. Suk artue nao. Eztao pazientzik asko. Eztakit zer ein. Giar giarren ikutu dit. Jainkok nai dona izan bei. Guztira jartzen naiz. Zer ein bear diou? Eztauke erremedioik. Guztie eraman bearra dao Jainkoa guztin gañen.

Denporenak

Zer denpora modu eiten do aldeotan? Guztiz txarra, Jaune, illa bete baño geiao da eurie eiten ez dola. Baño ordekon eun ederrak eta garbi tare ta kanpoz gozatzen euzten doe. Ori ona izango da paseatzen doen jauntxontzat, baño lurre landuz bizi geanak ezteu orla uzte. Zer ba, kanpontzat eztao ondo denpora au? Aldrebes, jaune, ereiteko ure pear ditugu eta leorte onek kalte eiten diu. Eta ereiteko ezin itxon leike eurie deza-naño? Bai jaune, estazioa aurrea dijoa ordea, eta ortako txit beandu eiten da. Ordun poztuko nitzeke lenbailen eurie eitez, ba guzion ona da lenengo. Ala desatzen deu nekazariok e, zeati baldin giro gaiztokin ereiten ba ezta seguroa labore urte on bat. Eta esan beit, baztar otan otz aundie eiten do? Ez jaune, emen ezte geieikok otzak eta berok. Ala aitzea ematen doe kanpotan ikusten dituan arbolak eta landarek. Ikusten deanez, jaune, beori ezta probintzikoa? Ez, erdeldune naiz, baño nola alderdi ok onatieleko notizi tituan denporaldi bat emen pasatzea pentsatzet. Etzako damuko, Jaune, zeati emen guztiz ondo bizi gea. Ala ustet; gizon ona, geldi bei Jainkokin. Adios.



Lurlantzea

Lurlantzea zako añ bearra gizonai, nun bera bae ezin biziko litzeken. Nekazarik lurre landuz emate itu ogie, eoskarie, aragitako ganaduk eta gizona pizitzeko bear ditun gañeako gauzak. Landutze itu arbolak eta landarak e, zeintzuk aiñ sustantzi preziosok ematez gañera, nola dien azukarra, oligoa, ardoa ta bestek, proporzionau ero eskuratzen diue jartzeko bear ditugun telak eta gure txek eiten dien zurajek. Lurlantzek, ba, bizitzen premik, betetze itu; eta la eitekoik protxugarrina da ta guztiok estimau ta laundu bear diou. Landarak jaio, azi ta iltzen die, ta oneati do on bizik animalinan antza. Nekazarik lurren ereiten don azie euskin berotasun ta urek ematen don bustiantzakin biuntzen da, eta azitzen do lurreti kanpora irtetzen don kirten bat. Kirten au azitzen da ta botatzen ditu ostok kanpoti ta zañek barruti; otati mantentzen da ta atati arnasea artzen do. Zañek txupatze itu alimentuzko sustantziz betea daon ure, landaran sabie formatuz, zein dan animalitan odola bezela. Sabi onek igotzen do zañetik ostotaño zañetaño berriz itzuliz, eta ola ematen die bizie landareai, odolak animalia ematen dien bezela. Landare batzutan gertazen da au modu baten eta bestetan beste modu baten, ala da nola batzuk geiao azitzen dien beste paño eta dituen propiedade desberdiñek, eta arrazoi oneati die landara jenero diferentek. Landara bakoitzek nai ditu bizitzeko berai daokion sustantzik, eta batzuk bear doe beste paño bero ta bustitasun geiao. Oneati leku batzutan ondo bizi ta azitzen dienak ez tie azitzen beste batzutan, eta emendi dator terreno ta klima desberdiñen izatea. Nekazarik ezautu bear ditu ba, landara bakoitzei daoizkion lur jenero ta klimak landara bakoitze ondo ta protxuz landutzeko. Lur bat ona ez tanen sustantzin batzuk falta zazkolako, ero sustantzi ok jan ditulako landarak azitzen, zitze emanez obetzen da. Lurrek eskaxak eta urri tien bazarretan, gure ontan bezela, guztiz baliosoa da iñaurkiñe, eta nekazarik ein bear do alein guztie bereanatzeko. Ola kordun, iñaurkiñ ta zitz obenak eiten dituna da dudai pae labore obenak bitze ituna. Arazoi (sic) oneati ganadui keiana dauken nekazarie izan oi da dudai pae aberatsana; ganaduai, ba, beirau bear zake kontu aundikin. Baño ezta asko zitz asko ta ona eitea re; jakin bear da gañera re bear bezela zitz au gobernatzen. Beste guztiz gañera txit on da aleiñe eitea zitzek-aldu ez dezala sustantzie estali bae agirin eukita, gertatzen dan bezela pilla txikitan kanpon jartzen ero zabaltzen danen lurren gañen beala lurre landu ta enterrau bae. Ganaderie izanda

nekazaitzen oñe, ganadu janan kontuk euki bear do beñepeñen nekazari onak, ganadu jani pae eliteke izan aziendaik. Lurren kalidade, klimen goraberek eta gure baztarra titun kondizio diferente batzuk erakusten doe, gure nekazarik artu bear doela afizioa ganadu janeta ta arbolak landatzea, eta ganadu geitzea. Eta baldin gure baserritarran bizimoduri, zeintzu tien nekazarik emen, ezpazako komeni lurlantzeko modue kanbiatzea, ala guztiz e on da kanbio ontan pentsa deilla. Probintziko toki askotan azitzen die ondo pinue eta beste arbola batzuk, eta la re añ baso gutxi dare nun eztaukeun etxetarako bear dien aime (sic) ol. Gañera basok ematen doe errekiñe ugari, aziendantzat oztoa ta beste protxuk, ekarri erañez ta konserbatuz bustitasuna re, zeñ dan añ premizkoa landara ta arbolantzat. Ganaduk nekazariari lanen lagundu ta zitzek emanez gañera, proporzionatzen dio janarie ta beste protxuk.



Nekazariri komeni zakon animalik eta on protxuk

Beie da gure nekazaitzea eiteko modurako animalik protxugarrina, bera asko da lurrek lantzeko, eta gañera emate itu esnea, mantekea eta jateko aragie. Beie kastu gutxikin azitzen da ta asko ematen do, ikullun garbitasun aundie ta belar onak eskatzen ditu, gañera denpora onakin larrera etaraz. Bide onen karga aundi eamateko irie obea da be indar ta irauteati; baño gure menditan kargak eabiltzeko ezta eokie bere korputz tajun medioz. Ardik ematen do protxu asko be, manteneue gutxi kostatzen dalako, alare samalda txikin badie, eta asko balio doe an protxuk. Illez gañea emate itu esnea ta gaztaie, zitz ona ta ume bat ero bi urtero; uste-bae artaldea azitzen dan modun. Ardik eukitzeko mendik asko dauken erozen nekazarik euki bear ditu ardik naiz izan samalda txikie, eta bestela ezin bado, naisikin (sic) erdi bana, ba denpora gutxin izango da artalde baten jabe. Auntze, gure baztarra pezelakotan, nun lur guztik lantzen dien kasi, ezta protxuzkoa kanpotan eite ituen kalte aundikaiti arbola ñiñikak eta landaran adar biunek janez; arrazoi oneati ezta libre eukitzea baserritan lotue ezpada pentsue emanez. Gure nekazarin janari prinzipalan bat dan esnek dauzke mantekea, gaztaie, gasure ta azukarra ta beie da esneik geiana ematen don animalie. Txerrie da protxu aundiko animal bat, ta jaten do ematen zakon guztie eta la mantentzen da kastu gutxikin, onen puska guztik ondo aprobetxauta, ba onen aragie da familirako launtze aundi bat. Berez añ zikiñe dirudin animal bat onan añ bearra da garbitasune nola bestetan, ba one pakarrrik asko launtzen dio azitzen ta gizentzen. Oloa guztiz protxugarrie ta emallea da baserri baten, ba be manteneue kanpon gutxi kostatzez gañea, urte batez beste emate itu 50 arrautza. Usok eta atak e emate itue protxun batzuk baserri batzutan; baño nolako lekue dan kontun euki bear da ematen doena baño geiao kosta ez ditezen.

Protxuzko insektok

Erlea da arrautzati jaiotzen dan insekto txiki bat; arrigarri tie aren ijenioa, lan einaie ta obedientzie; eta ren eztie ta argizaie balio aundiko tie. Erlek bizi die alkarrekin erregiñen menden, zeñ dan beste pezelako bi aundi, eta rek gobernatzen ditu ta aintzen die besteai, kargu au izanda bere eiteko bakarra. Erle bakoitze titu 20 millati 40 milla erle beargille, eta 1800 erle ar, listorrek deitzenak, ezten baek eta bearrik eiten ez doenak. Erle beargilletako batzuri ibilkarin izena ematen zaie, kanpora irtetzen doelako eztie ta argizaie eiteko komeni zaien lorak bitzera, eta besteai obragilleña (sic) eztie iten bakarrrik aitzen dielako. Langillek iltze itue listorrek jaiota 45 eunera, geianen Uztaillen; ill onen aizken aldera arrapatzen e die erlekumak, zeintzu tien erlen umek. Erlen eztie eiteko modue marabilla ba ta; apropos eiten doen betun batekin estaltze itue erlautzen irristuk eta gero eite itue argizaizko panale batzuk nun ipintzen doen eztie. Erlek eiteko euki bear da gogon beroa ta aizeizkutue bear doela. Serea eiten don arra da, erlea bezela arrautzati jaiotzen dan insekto bat, eta lau aldiz narrue mudau ta gero arretik txipilota eiten da. Masusta ostokin mantentzen da, eta kapullu bat eiteko propiedadea dauke, zeñ dan 300 kana baño geiao serazko ari bat eitea, aren barrun sartuta. Kapullu otati batzuk azitako euzten die ta gañeakok ur beron ipintzen die arra ill ta kapullue aprobetxau dein, ontati serarie etaraz. Azitako euzten dien arrak ogei eun dituenen kapullun zulo bat ein dandi irtetzen doe txipiloten itxuran, gero gero berriz arra ematen don arrautzak emanez.



Beste animali batzuk

Zaldie da mundu guztin ezautzen dan animali bat bere protxu aundiati; serbitzen kargea eramateko, gañea igotzeko ta tiratzeko ala kotxeai nola gurdi kargatuei. Zaldi jenero desberdiñe padie ta da animali inteligentea, prestue ta obediente, ba añ indartsue ta baliente izanatik, erakusten zako ta obeditzen do, emakumen menden sartzeraño. Txit azukar da zaldie, eta erakusten dioenak au ematen dioe obetogo ezitzeko, gutxi gora bera 25 urteti otamarrera bizi oi die. Astoa da gizonantzat protxu aundiko animali mantso bat; beste paño giao da bere eaman ta gutxi bearrati ta da launtze aundikua mandazaientzat eta nekazari pobreantzat. Asko sufritzen do ala lan aundie nola janarin faltea; eta gaizki tratatzen do gizonak bidebae kastigauz eta txarki kontu einez. Astok txit sudur ona titu, ba urrutiti sentitze itu usaiek; zaldie aimeste bizitzen da; astaemen esnea eraten da erremediotzat eta animali onen narruk serbitzen do galbaiek, atabalak, pergaminok eta zapatak eiteko. Mulak eta mandok beorrrakin astoarran ume tie, ero astaemekin zaldinak; indar aundikok eta zaldie baño gutxigokin mantentzen dienak, delikadu gutxikok eta mendibidetako ta Kastillako nekazarintzat guztiz onak. Txakurre da animali guztitan prestuna, leialana ta kariñosona; izugarri istinto aundie do, ezautzen ditu arritzeko modun nausin deseok eta izaten dio bestek ez bezelako kariño bat. Morroirik onana peziñ ondo ondo be nausin etxeri kontu eiten dio, zerk eiten don txit bearrekoa, ala re gure baserritan, be jenio onak aztu eraiten dio eiten zakon txarkerik, eta miñasten do kastigatzen donan eskue.

Txakurre bizitzen da amabi urte bezela, eta aimeste jeneron arten, ondorengo ote printzipalanak: artzai txakurre zeñ dan ganaduri kontu eiteko destinatzen dana, urtxakurre, eper txakurre, erbitxakurre, karlin txakurre ta txakurtzarra. Artxai txakurrek kontu eiten dio ganaduri ta defenditze itu persegitzen doen pistitati, guztiz serbizio nak einez ganaduri; be janarie, ogibeltz eta gogor batera urritue, txit kastu gutxikoa da.

Txakurrek guztiz usai fiñe do; usaiti ezautze itu zeñ bidetati pasatu dien erbie, eperra ta gañerakok; eta arrasto oni segita topatzen do eize, au arkitzen dan lekun geldituz nausik il dezan.

Txakurtzarrak, ero karnazei-txakurrek ez do usai au be nausie gauez ezautzen ez doneaño, zeñ dala medio gertau dien desgrazik askotan; letagiñek dauzke eltzen donen kurutzan ta erres ez kentzeko modun; arrazoi

oneati karnizerok usatze itue ganadue errenditzeko. Ur-txakurre da guztitan geiana dakina, eta alako modun erakusten zako, nun alleatzen dan gauzaik arrigarrinak ikastera. Karlin txakurre geianen izaten da umen jolas ta pozetako eta da danetan protxue txikinekoa. Txakur jenero otanak bata bestekin kasteauekin etatzen da beste jenero bat ez baten ta ez besten antzi tona ta otako tie geianak; otako tie gure baserritan darenak. Katue da inklinazio txarretako animali bat. Saguk iltzeko jenioa dona, zeñtzun etsairik aundina dan; arrazoi oneati eukitzen da etxetan, ba gañeakon estimazio txikikoa da. Guztiz gogorra da, eskerbagea ta lapurre; intxte itu be umeak eta mortifikatze itu be mendeko beste animalik; atzamarca eiten dio bere nausiri, eta jaten ematen dionai berai e, eta arrapatzen do al don guztie naiz ez izan premik. Katuk guztiz traidore tie, eta la da nola ez doen beñe kara kara beiratzen; argik ofenditze itu eta gauez beste animali paño obetogo ikusten doe; txit lo gutxi eiten doe, eta amar bat urten bezela bizitzen die.



Osasune gordetzeko modue

Airea da ikusten ezteun baño alde guztitati ingurutzen gaitun gauza bat; mogitzen danen eramaten diu arropak eta gauza ariñek, eta ordun aizea do izena; baldin indar aundikin mogitu ta arbolak eta etxek botatzen baditu hurakana esaten zako. Aire amoserakoa da amoserako aizea, zeñ dan lurren ingurumariko aize guztie; eta la danok bizi gea aize onen barrun, arraiek urpen bizi dien bezela. Aizea sartu ta irten dabill beti gure birikatan ta onla arnasea artzen deu; au bae zin biziko gindeke ta la guztiz premizkoa da aizea purue daon lekun arnasea artu dezaun. Baserritarrak eta kanpon bizi dien gañeako personak aize librea daon tokin arnasea artzen doe ta sanok eta azkarra tie; etxe txikitan ta aizea gutxi txandatzan dan lekutan bizi dienak, erri aunditan gertatzen dana, kolore txarrekok eta gaxokorrek geianak izaten die. Eta la bizitza txikitan bizi geanen iriki bear ditugu leiok aizea berritzeko ta iristeko onla beti iraun dezala garbi, aize txarra daon lekutati urrutiratzea aleñe einez. Guztiz txarra da txit aire beroa daon lekuti otza dagonera pasatzea, beaz inprudentzi ba ta oiti, su ondoti, ero txit bero daola aize otzeta irtetzea lenaoti estalgarrrin bat artu bae. Txarra-re da osasunerako jardin eta arbolaritan gaez ein oi don preskurea artzea, ba eunez airea garbitzen doen landara ta lorak, botatze itue gaez aire au galdu ta osasunen kalteko lurrueñek. Aire irazie ero kaletartetue da kale estutan, etxetako baranda ta eskatzetan, eta ondo itxi baeko ate ta leiondotan dabillena; aize au artzea txit peligrosoa da ta iges ein bear zako kontuz, kanpon eotea naiao izanez. Euzkin argik ikusteko serbituz gañera estimulatzen do narrue ta ematen dio kolorea; argi onek faltek sortzen do illuntasune, otza ta bustiantza, zeintzu tien txit gaiztok osasune gordetzeko; argi geieik batzutan kalte eiten dio begibisteri, bere urritasunek nekau ta gaitz eiten dion bezela. Bero geiei re kaltekoa da otz geiei bezela; baño guztiz gañea bero aunditik otzera ez beñgon pasatzeko kontu aundie euki bear da, eta la re otz bustie danen. Garbitasune, ala korputzen ta arropatan nola etxen da beste gauza guztitan danetan txit bearra da osasune gorde nai bada, zeati zikinkerik modu askotara gaitzek ekartze itu. Jana usau bear da modu aundikin osasune gordeko bada, ba gaitzi keianak etortzen die bear bezela ez jateti ta ez erateti. Ala janaritan nola eraritan asko beirau bear dieu nolako tien, alimentu sanok eta bear dan modukin artuz bizitzeko janez ta ez jateko bakarrik biziz, jaten gozatzen dienak eiten doen bezela. Ejerzizio da añ premizkoa osa-

sune gordetzeko nola garbitasune ta jateko ta erateko kuidadue; gure korputzen makiñea ezta geldi eoteko eiñ, eta la modu oneko ejerzizio gauza bearra da osasunei luzai (sic) eraiteko. Jainkok animen potentzik eman zigun ejerzita gintzen eta la ezta azko korputzen ejerzizioa, baizik bearra da animen potentzinak e. Arrazoi oneati lana protxusko gauzatan txit ona da osasunentzat, gure korputzen parte diferententzat ona dan bezela aldizkako mogimentue ta ejerzizioa. Baldin ibiltzeko ein dan makina bat, por ejemplo erleju ba pezela, beti geldi ero geatue badao, naitzen die be kurpillek eta bear danen ezin ibil da, eta la gero ez do ezertako serbitzen. Ba personatan ejerzizion faltek onen antzeko eitekok ekartze itu. Deskantuk seitu bear dio lanai loa bearra dan bezela, ba naturalezaik fuerte ta gogorranai senti eraiten dio atxeten ezpado ta loa kentzen bazako. Goiz etzatea ta goiz jaikitzea guztiz sanao da, gaue galtzek osasunei kalte aundie eiten dion bezela. Pasiok e asko eiten doe osasunen gordetzen, eta la da nola ondo eiten donak gozatzen don barruko soseguk asko launtzen don sano ta gaitzi pae bizitzeko. Askotan ikusten die besten inbidie doela mediante azitzen ez tien ume gaixokorrek eta thatharra; onek erakusten digu, ba, eztiogula eutzi bear gañe artzen oni ta beste pasio txarrai, nola dien, arrotasune, orgullue, ta gañerakok.



Etxeko zurtasune

Gauza danetan premizkona manerea da gauza onik eingo bada, eta la etxeko lanetan lenengo billau bear dana da gauza bakoitzentzat dagola leku jakin bat, eta gauza bakoitze be lekun. Bere eitekotan manerea ta modue daukenak beti dauke denporea danerako; aldrebes, gauza prezioso au ez dauke bere lanak ondo preparatzen ez titunak. Ondo aitutako urritasunek konsejatzan do alperrikako premik ez sostenitzea; ontako lenengoti euki bear da kontue alperkastuik ez eiteko, ba, dan txikinak izanatik gero inportantzi aundiko tie premizkok eiten badie. Garbitasune ta txukintasune emakumek guztiz bear ditun kualidadek, asko launtzen doe urritasuneako, ba zikintasunek gauzak alperrikalduta, etxeko premi ta kastuk geitze itu. Manerea, garbitasune ta urritasune die emakuma batek izan bear ditun etxeko birtutek; eta baldin be etxen ok isten baitu, seguro da eingo dola be familin zoriona. Eleike maneraik ezta urritasunik e baldin donakin kastun arteko berdintzeik ezpadao; ontarako batzuk eta bestek apuntau bear die xuxen, eunero kastatzen dana ta irazten dona seguro jakiteko modun, beti zerbait sobratzea aleiñe einez. On da ikustea askotan eunero kastatzen dana ta ill bateko kastuk bestekokin konparatzea, kastu on artan kendu litekenen bat ote dan ikusteko egizko premia beiratzeta eutzi bae. Saiiau bear da, ba, primik ikastea ta oi kunplimentu ematea, lendi kontue xuxen etaraz zenbait diru bear dan antzat; onla isten da ezer ez kastatzea alperrik eta erres dirue sobratzea, zer dan familiko amak izan bear don asmoa.

Kortesie

Kortesie dao gure eiteko guztitan beiratuk izaten; dao atentziokin da modu onakin mundu ontan tratatzen deun personakin portatzen. Kortesie da kualidade bat añ bearra nola ona ta protxuzkoa mundun, au doen personak ondo errezibitu tie toki danetan, zeati kondizio onek estimau eraiten ditu ondo azitako jenden artan.

Kortesik aintze itun lenengotako eitekoa da korputzen txukintasune ta apaintzea; eta la ezteu ezer e euki bear gure korputzen besteai eoki itziko etzaienik. Ala saiau e bear deu besteai gusto ematen geure modu onakin, zeintzuk izan bear doen arkitzen gean lekuri ta tratatzen ditun personan kondizioai tokatzen zaien modukok. Guri bizie man, ta gu ondo azitzeko neke jenero danak pasauta gañea, gure zorientasune ta ondo izateati aleiñe eiten doen gurasok tratau bea itugu amorio aundi, errespeto aundi ta obedentzi itxukin. Esker onekok alako seiñalek eman bear dieu maisuai e, beiramentu oso ta errespetokin tratauta, zeati dien gure biarren gurasok eta erakusten diguen gure denporea ondo enpleatzen erakusten diguen eskolen bitartez. Aundigokiko tratun, zeintzu tien gu paño edade, esperientzi, dinidade ta beste alderdi aundigo tauzkenak, aitzea eman bear dieu beti errespetoa ta umildadea, akin berdindu nai deulako motiboik ezertan e eman bae.

Geure modukok izan bear ditu beti maitego ta tratau aundigo paño aiskiretasun geiaokin, baño a paño aundigotzat dauzkeula geure buruk aitzea eman bae. Txikigokiko tratuk naiditu ontasune, kariñoa ta leguntasune, kondizioik humillenekok txit ondo merezi dolako gure konsiderazioa. Iñoi gaitzik ein bae danai gustoa ematea da jendearteko tratun billau bear dan fine; gurekin eitea nai gendukena danakin guk eitea da au isteko modue.